

## VITORIA-GASTEIZ / Asteburua liburu artean

**Liburuaren Nazioarteko Egunaren harira, asteburu osorako egitaraua antolatu du Gasteizko Artium museoak; atzo hasi zen, irakurraldi ozenarekin.**

ARITZ MALDONADO. GASTEIZ. Liburuaren Nazioarteko Eguna apirilaren 23an bada ere, Gasteizen egun batzuk aurreratu da ospakizuna. Arabako hiriburuko Artium museoan atzo hasi zen liburuen festa; asteburu osorako egitaraua aurkeztu du museoak. Ia inauguratu zen unetik, museoako liburutegiak garrantzi handia izan du arte garaikidearen gunearentzat; maiatzaren 18an ospatuko den Museoaren Eguna girotzeko baliatuko dute asteburuko ekitaldia. Horrez gainera, Arabako liburu saltzaileen gremioak Gasteizko Plaza Berria hartuko du gaur eta bihar, dozena bat erakusmahai ezarriz. Ez dira bakarrak; egun esanguratsuak direla jakitun, ugariak dira salmahaiak eta liburuak kalera atera dituzten saltokiak.

Eguerdiko hamabietan, puntu-puntuan, urtero egin ohi dutenez, liburu irakurketarekin hasi zuten; etenik gabe, arte eta kultura garaikideei buruzko irakurraldia egin zuten hara bildu zirenek. Euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez, lotsak alde batera utzi, eta loturetatik askatu ziren bertaratuak. Iluntzeko zortziak arte egon ziren plazan, ozen irakurtzearen plazeraz gainera, lagunekin elkartu eta liburuez hitz egiteko. Hitzordu hori urterokotzat duenetako bat da Charo Urbina. Biziotzat du poesia arabarrak. «Poesia arte gorena da; margotzea ere atsegin dut, baina ezer ez liburu bat beste». Publikoaren aurrean sei poesia irakurri zituen. Atsedendietan, ohikoa izan zen kafearen eta abarren bueltan mahaian laguntalde txikiak hitz egiten ikustea. Hitzordu klasiko horretan hamarnaka lagunek parte hartu zuten, eta bakoitzak bere intereseko testuak irakurri zituen; musika eskolako bi kidek Angel Gonzalezen La trompeta testua irakurri zuten, adibidez.

### **Errealitatearen trataera**

Lagunartea albo batera utzita, lagun bakan batzuk zebiltzan erakusketan. Bisitarien artean, ikus-entzunezkoak nahiago dituztenak ere bazeuden; zinema dokumentala ardatz duen erakusketa bisitatu zuten gustura. Liburutegi ondoko areto nagusian dagoen gunean, Frank Capa eta Dziga Vertov egileen leloekin margolanak daude eginik. Gaika sailkaturik, ikusi beharrekoak diren pelikulak daude. Bigarren Mundu Gerrako dokumentalak, nazien Alemania... genero bakoitzean azpimarragarrienak direnak gomendatzen dituzte, hala nola Buñuelen Tierra sin pan lana.

Azken urteetan, bookcrossing deritzon egitasmoa bultzatu du Artiumek. Horren bidez, artea, argazkilaritza eta arkitektura jorratzen duten liburuak askatu dituzte; museo garaikideak antolaturiko egitasmo horretako liburuak New Yorken eta Parisen agertu izan dira.

Etengabeko irakurraldi horri txapela jarri, eta eguna borobiltzeko, bi emanaldi berezi izan zituzten atzo. Alde batetik, Elena Aitzkoaren performanceaz gozatu zuten, Gure amodioa Erdi Aroan jaio zen da ikuskizunaren izena, eta Praxis proiektuarekin egiten duten bigarren lana da. Gaueko hamarretan, berriz, kontzertua eman zuten Jesus Guridi musika eskolako ikasleek, zazpigarren artea eta jazz musika ardatz hartuta. Beste urte batez, azala igarota, liburuaren mamia izan da protagonista Artium museoan.